

azpeitian zer?

134. zenbakia

udal aldizkaria

2010eko abendua

Sar zaitez Sanagustinera

Azpeitiko kuturgune berria zabaldu da; eta, aurrerantzean, ekitaldi ugari izango da bertan

700 urte
azpeitia




- 3 Soreasuko parking-a
- 10 Sanagustin kulturgunea
- 4 Buzoiak (urteko balantzea)
- 12 Motxean
- 5 Urteurreneko liburuak
- 14 Ereiten
- 6 Gabonak + gazteria
- 15 Udal erabakiak
- 8 Garapenerako diru-laguntzak
- 16 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitetza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Soreasuko aparkalekua doan izango da abenduaren 20tik urtarrilaren 10ra arte

Autoa dohainik aparkatu ahal izango da 09:00etatik 21:00etara bitartean



Gabonak iristear daude eta Alde Zaharreko kale eta dendak eroslez beteko dira hurrengo egunetan zehar. Honekin batera, plazan eta inguruko kaleetan aparkatzeko aukerak murriztu egingo dira eta horregatik, Azpeitiko Udalak Soreasuko lurrazpiko aparkaleku berria erabiltzeko gomendioa luzatu nahi die herritarrei.

Gainera, aparkatzeko aukera errazteko, merkataria eta Udala ados menera iritsi dira eta abenduaren 20tik urtarrilaren 10ra arte doan aparkatu ahal izango da. Dohaineiko eskaintza hau merkatal ordutegian bakarrik izango da, hau da, 9:00etatik 21:00etara bitartean.

Ordutegi honetatik kanpo, 21:00etatik 9:00etara, ohiko tarifa zerbitzua izango du Soreasuko aparkalekuak. Era berean, lehen ordu eta erdia guztiz doan da. Soreasuko txandakako aparkalekuaren prezioak honakoak dira:

**LEHEN 90 MINUTUAK
DOAN**

**91. MINUTUTIK AURRERA
0,008333 euro minutuko**

**EGUNEKO, GEHIENEZ
10 euro**



Proposamenei emandako erantzunak, datutan

2010 urtean herritarren 40 kexa eta iradokizun inguru jaso dira Azpeitian zer? udal aldizkarian.

Herritarrek Udaleko ordezkarietara galderak, proposamenak, kexak edota iradokizunak egiteko aukera izaten dute udaletxeko sarreran dagoen gutunontziaren eta www.azpeitia.net webgunearen bitartez. Ontzian jasotzen diren proposamen asko Azpeitian zer? aldizkari honetan argitaratzen dira ondoren, sail bakoitzeko arduradunak erantzun dezan.

Amaitzeko den 2010 urtean, 40 gutun inguru argitaratu dira, batzuek kexak izan dira eta beste batzuk, berriz, proposamenak. Jasotako iradokizun hauei erantzuna ematen saiatzen da Udala. Horrela, irtenbidea eman zaien artean hauek aurki daitezke:

- Herriko ibaietako zabor bilketa egin da.
- Goenako aisialdiko gunea eraberritu da.
- Akamendin beirarentzat ontzia jarri da.
- Txakur-kakak jasotzeko poteak ezarri dira.
- Haurtzaindegi ondoko edukiontziak lekuz mugitu dira.

Beste batzuk, berriz, proiektuak dira eta aurrerago egingo dira. Hauen artean daude:

- Urrestillara joateko bidegorria.
- Garraio publikoaren sarea handitzea eta hobetzea.
- Santutxo auzoko espaloiak egokitzea.
- Alde Zaharreko sarrerentzat pibotak eta txartelak.

Herria denon artean hoberantz joan dadin, Udalak deia luzatu nahi die herritarrei dituzten iradokizun eta proposamenak bidaltzen jarraitzeko.



www.azpeitia.net

Sartu zaitez www.azpeitia.net udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- Udal albisteak uneoro ezagutzeko.
- Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzeko.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.



- Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezak on-line erantzungo ditu.
 - Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.
- www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.



Herriko historiaren bilduma

Azpeitiaren inguruko gaiak jorratzen dituzten bost monografiko aurkeztuko dira

azpeitiko Herri Gutunak 700 urte bete ditu eta data berezia gogoratzeko, ekitaldi ugari antolatu ditu Udalak urte guztian zehar, besteak beste, irteerak, erakusketak eta jaialdiak. Herriak betetzen duen efemeride berezia une aproposa ikusi da herriko historia ikertu eta gehiago ezagutzeko.

Horrela, azterketa honen emaitza berehala ikus ahal izango da. Izan ere, Azpeitiko historiaren liburu bilduma zazpi monografikoz osatuta egongo da eta horietatik bost aurkeztuko dira abenduaren 17an udaletxeko areto nagusian;

- Jesus Angel Gil eta Maria Jose Aranbururen "Azpeitiko ondare historiko artistikoa".
- Jose Antonio Azpiakuz egindako "Azpeitiko industria eta merkatalgoa Aro Modernoan".
- Jose Maria Zuazok idatzitako "Ilustrazio garaia eta lehenengo karlismoa Azpeitian".
- Maite Ibañezek eta Marta Zabalak elkarlanean egindako "Lan industrialaren memoria Azpeitian".

- Juan Madariagak idatzitako "Azpeitia: gizarte, kultura eta pentsamoldeak".

700. urteurrenaren inguruan argitaratuko diren liburuak eskuratu nahi dituztenek, abenduaren 17an eta 18an eta hurrengo asteburuan salgai egongo ditu udaletxe azpian jarriko den postuan.

Salneurriari dagokionez, monografiko bakoitzak 15 euro balioko ditu eta bilduma osoak (7 liburu), berriz, 70 euro.

Opariak: Euskaraz, garapenerako eta sexu bereizkeriarik gabe

Euskarazko Produktuen Katalogoaren 5.000 ale banatu dira aurten Azpeitiko etxeetan



eta gazte lekua jolas eta jostailuen bidez haurrak hezten ari garenak. Informazioa edo zalantzaren bat badaukazue jolas edo jostailuen inguruan hurbildu lasai urtean zehar bertako hezitzaileengana”, gaineratzen du Larrañagak.

Neska ala mutila?

Bestalde, jostailuek badute genero rolak barneratzen laguntzeko funtzioa. “Jostailuak aukeratzekoan, haurtxoa neska edo mutila den kontutan hartuta egiten dugunean hasten dira ezberdintasunak, bereziki

bizitzaren lehenengo urteetan”. Horrela, neskek eta mutilek jolasaren bidez, genero estereotipoekin loturiko hainbat arau, rol edota jokaera barneratzen dituzte. Jarrera sexistak ekiditeko, Parekidetasun sailak aholku sorta bat eman du diptiko baten bitartez:

- Sexu eta rol estereotipoak errepikatzen ez dituztenak bultzatu.
- Jostailu belikoak edota jarrera bortitzak bultzatzen dituzten jolasak ekiditu.
- Bizitzarako eredu anitzak bilatu.

beste urte batez, eta data hauek iristearekin batera, Azpeitiko etxebizitza guztiek euskarazko produktuen katalogoa jaso dute. Aurten, 5.000 ale banatu dira guztira eta bertan, 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako produktu desberdinak bildu dituzte; musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzat produktuak. Katalogo honen bidez, euskarazko produktuak ezagutzeak gain, gurasoek eskaintza ezagutu dezakete dendara joan aurretik.



Era berean, gurasoek kontutan hartu behar dute haurren opariaren

hautaketa oinarritzak dela umearen garapena bideratu eta jolasaren kalitatea bermatzeko eta horretarako, Gazteria saileko teknikaria den Aloña Larrañagak gomendio batzuk ematen ditu: jostailuak bakarka zein beste umeekin aritzeko balio behar du, haurraren adina eta beharretara egokitu behar du, opari bat izan behar du eta ez inposaketa bat, haurren berezkoak diren ezaugarriak sendotzeko eta osagarriak izan daitezkeen joerak lantzeko ere balio dezake, jostailuak segurua izan behar du, tresna hutsa baino ez da eta garrantzitsuena jolas egitea da.

“Bestalde aipatu, herrian baliabide ezberdinak dauzkagula: bi ludoteka

Opor hainbat jolas

Haur eta gazteek ekitaldiz beteriko Gabonak igarotzeko aukera izango dute Gazteria sailaren eskutik



20:00etara
zabalduko da eta
2 euro kostako
dasarrera. Bertan

Gaztelekuak, aldiz, 12 eta 17
urte bitartekoentzat pala txapelketa,
bizikleta irteera eta emanaldiak
prestatu ditu.

Hau guztia nahikoa ez balitz, umeentzako
zine zikloa ere izango da abenduaren
27tik 3era. *Toy Story 3*, *Vicky Bikingoa*,
The karate kid eta *Shrek*, *Felices para
siempre* filmak eskainiko dira, hurrenez
hurren, Sanagustin kulturgunean.
Haurrek euro bat ordaindu beharko
dute sarrera eta gurasoek dohain sartu
ahal izango dute.

herriko ikastetxeek atak itxiko
dituzte Gabonetan eta haur eta
gazteek oporluzeak izango dituzte.
Hori dela-eta, Udaleko Gazteriak sailak
ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu du
umeak ez daitezen aspertu.

Honela, abenduaren 26tik 30era eta
urtarrilaren 2tik 4ra, jolas parkea
ezarriko da Izarraitz pilotalekuan.
Parkea 0 eta 10 urte bitarteko haurrei
zuzenduta egongo da, 16:00etatik

aurkitu ahal izango diren jolasen
arte, dantzarako bi pantaila, giza
futbolina, ohe elastikoak eta puzgarriak
daude.

Urtero lez, ludotekek eta gaztelekuak
ere ekintza desberdinak eskainiko dituzte
hilaren 27tik 30era. Iturritxiki eta Txiki
Txoko ludotekek 5 urtetik 12 urtera
bitarteko gaztetxoentzako ekitaldiak
antolatuko dituzte, besteak beste, Bilboko
Gabon parkera eta Olentzeroren etxea
ibilaldiak, eskulanak, txapelketak...

Mundu hobeago baten bila


Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailak 13 proiektu diruz lagundu ditu 2010 urtean



Garapen bidean dauden herrialde desberdinak lagundu ditu 2010 urtean Azpeitiko Udalak. 1994an hasi zen Udala hirugarren mundurako diru laguntzak ematen, 6.000 euro banatzen hasi zen, gaur egun, ordea, udaletxeko aurrekontuaren %0,7koa bideratzen du.

Modu honetan, aurtengo 102.654 euro ematea onartu da, eta kantitate hau 13 proiektu ezberdinetara bideratu da, azken urteetan baino egitasmo gehiagotara. Izan ere, 2007an bederatzi proiektu lagundu ziren, 2008an hamabi eta iaiz, hamaika.

Aurtengo onartu diren proiektuak hiru kontinentetan banatzen dira; zortzi Amerikan (Ekuador, Bolivia, Salvador, Nikaragua, Venezuela eta Haiti), lau Afrikan (Sahara, Ruanda eta Afrika Erdiko Errepublika) eta azkena, Asian (India).



Sahara argazkitan

azpeitiar Saharar Taldeak ekitaldiak antolatzen ari da Afrikako herrialdeari laguntzeko, eta hauen artean, Betharram aretoan argazki erakusketa izango da hilabete honetan zehar, abenduaren 17ra arte, hain zuzen ere.

Antolatutako erakusketa honek 'Hodeien seme-alabak, giza eskubideen egoera mendebaldeko Saharan' du izenburu

bezala eta astegunetan 18:00etatik 20:00etara zabalduko da eta asteburuan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Era berean, abenduaren 18an janari bilketa egingo da udaletxe azpiko arkupetan Saharara bidaltzeko. Zerbait emanez lagundu nahi dutenek, 10:00etatik 20:00etara joan beharko dute plazan ezarriko den postura.

Udalak 2010 urtean diruz lagundutako proiektuak:



Hona hemen Azpeitiko Udalak diruz lagunduko dituen 13 proiektuen azalpenak:

Bangassou (Errepublika Zentroafrikarra)

- **Proiektua:** Garapenerako lankidetzakomunikazioen hobekuntzaren bitartez.
- **Udalak emandako dirua:** 11.016€

Bolivia

- **Proiektua:** Beniko baserritar indigenentzat lur komunitarioen titulazioa.
- **Udalak emandako dirua:** 5.508€

Bolivia

- **Proiektua:** 166 ikasleentzat ikastetxera joateko arroparako beka.
- **Udalak emandako dirua:** 10.402€

Ecuador

- **Proiektua:** Haurtzaindegia (100 ume) berritzea.
- **Udalak emandako dirua:** 11.016€

Ecuador

- **Proiektua:** Barnetegia ikastetxearen ondoan eraikitzea urruti bizi diren umeentzako SADEN.
- **Udalak emandako dirua:** 11.016€

Haiti

- **Proiektua:** Izurriteak eragindako kalteei aurre egiteko.
- **Udalak emandako dirua:** 6.000€

India

- **Proiektua:** Talasemia eta HIESA duten haurren tratamendu medikua ordaintzea
- **Udalak emandako dirua:** 1.836€

Nikaragua

- **Proiektua:** Bi gela eraikitzeke diru-laguntza.
- **Udalak emandako dirua:** 11.016€

Ruanda

- **Proiektua:** Unibertsitaterako laguntza.
- **Udalak emandako dirua:** 5.508€

Ruanda

- **Proiektua:** 4 etxetxo eraikitzea
- **Udalak emandako dirua:** 8.152€

Sahara

- **Proiektua:** Ordenagailu gelan interneterako seinalea.
- **Udalak emandako dirua:** 5.578€

Salvador

- **Proiektua:** Suchiton, 10 komunitatetan emakumeen bizi-baldintzak hobetzea.
- **Udalak emandako dirua:** 11.016€

Venezuela

- **Proiektua:** Komunitate indigenetako gazteen hezkuntza hobetzea.
- **Udalak emandako dirua:** 4.590€

Kulturaren atea zabalik

Sanagustin kulturguneak ekitaldi gehiago plazaratzea ahalbideratuko du



Sanagustin kulturgunearen inaugurazioan parte hartu zuten ordezkari eta eragileak.

azpeitiko kulturak zituen hutsuneak betetzen hasi dira dagoeneko. Azken urteetan areto egokirik igaro ondoren, Sanagustin kulturgunea zabaltzea lortu da. Pauso garrantzitsua, dudarik gabe, herriarentzat. Ekipamendua herriko plazan dago kokatuta, eraikina espazio handikoa da, ekipamendu tekniko ona eta modernoa du, eta Azpeitiko kultur taldeak oso ilusionatuta daude.

“Bidea oso luzea izan da baina azkenean Sanagustin gunea ireki da. Azpeitiko Udalaren helburua da orain, herriko kultura dinamikoa izatea eta ekitaldi gehiago plazaratzea. Elkarlanean, proiektua aurrera eramatea lortu dugu eta eskerrak eman nahi dizkiogu kulturgunea zabaltzen lagundu duten talde eta herritar guztiei”, adierazi zuen Ana Mendizabal Kultura zinegotziak.

“eraikina espazio handikoa da eta ekipamendu tekniko ona eta modernoa du”

Kultur Mahaiak agertu duenez, Sanagustin kulturgune dinamikoa, parte-hartzailea eta zabala izatea nahi du, herriko taldeen plaza bihurtu eta kanpoko eragileak eta jendea ere ekartzea eta erakartzea. “Lana ondo egiten bada, lorpen handiak izango ditugula uste du Kultur Mahaiak. Izan ere, kultur ekitaldi gehiago antolatzeko aukera egongo da, beste eragileekin harremanak lantzeko eta haien ekitaldiak antolatzeko aukera egongo da eta euskara gehiago sustatzeko aukera izango da”, esan du Mahaiko kide den Aitor Bengoetxeak.

Lehenbiziko hilabeteetan izango den egitaraua zehaztu gabe badago ere, hilabete honetan kulturgune berriak bi ekitaldi hartuko ditu bere baitan:

- Abenduaren 17an. Txapel-en omenezko bertso saioa. 22:30ean.

- Abenduaren 19an. Triku Musika Elkarteko kideen kontzertua. 19:00etan.

Sanagustinen hasiera honetan funtzionamendua Udalaren eta Kultur Mahaiaren ardurapean egongo da. “Kultur Mahaia hasieratik gestioan izatea garrantzitsua dela uste dugu Mahaiko kideok, Azpeitiko kultur mugimendua Mahaian islatuta dagoelako eta hori betiere berme handia delako. Gainera, obrak amaitu diren arren, aurrerantzean ere kulturgunea hobetzen segitzeko aukera dago”, gaineratu dute.

Abenduaren 11ean egin zen kulturgunearen inaugurazioa. Bertan, Udal eta erakundeetako ordezkariak eta herriko kultur talde eta eragile desberdinak ez ezik, herritar ugari izan ziren. Ekitaldia 19:30ean hasi eta antzerkiaz, musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera izan zen Hartzaka, Itsasi, Juan de Antxieta musika eskla, Erriarraitz bertsozale elkarte, Txistulari taldea, Julian Barrenetxea abesbatza, Zubi Zarreko musika taldea eta Dantza Solteko eskolaren eskutik.

**“700. urteurrena
gogoratzen ari garen une
honetan opari bat dugu
Sanagustinen irekiera”**

Julian Eizmendi alkateak agertu zuenez, “Azpeitiko herriaren 700. urteurrena gogoratzen ari garen une honetan opari bat dugu gaur herritarrok Sanagustin kulturgunearen irekiera” Sustapen ministerioko arkitektura saileko zuzendariordeak, Dionisio Chaparrok, berriz, historia eta balio handiko eraikinak herritarrei erabilgarri izateko egiten duela lan esan zuen eta “beraz, orain zuek, herritarrok, erabili eta gozatu dezazuela opa dizuet”.

Ekitaldiarekin amaitzeko, parte-hartzaile guztien argazki erraldoia atera eta mokadutxoa eskaini zen.

2011 urteko plangintza

Herriko kulturak pauso handiak eman dituen arren, aurrerantzean hobetzeko asmoa agertu du Kultur Mahaiak eta abenduaren 1ean egindako batzarrean, 2011 urterako plangintza eta aurrekontua adostu eta ontzat jo zituen. Modu honetan, azpiegiturei dagokienez, Sanagustineko trantsizioa prestatu eta Soreasukoa irekitzerakoan lankidetzeta eta sinergien optimizazioa aztertzea izango dira helburuak. Kultur eskaintza orekatua lortu nahi da. Oreak kultur espresio edo diziplina aldetik, herriko espazio aldetik, egutegi aldetik...



Lankidetzaren topagunea



Enpresa eta berrikuntza teknologikoko agenteen arteko elkarlanaz aritu ziren Ezagutza Gunean

azaroaren 25ean Intsausti Jauregiak Ezagutza Guneak antolatutako Enpresa Handi eta Txikien arteko II. Topagunea hartu zuen bere baitan. Ekitaldiaren gai nagusia Nola aritu lankidetzan enpresa eta berrikuntza teknologikoko agenteen artean? izan zen eta guztira, 30 pertsona inguruk hartu zuten parte, eskualdeko 17 enpresetako ordezkariak, berrikuntzako agenteak eta Azpeitiko eta Azkoitiko udaletxeetako ordezkariak aurkitzen zirelarik. Topagune honen helburu nagusiei dagokienez, berrikuntza teknologikorako elkarlanaren ezagutza eta esperientziak konpartitu foroko enpresen arteko harremanak sustatzu, maila desberdinetako berrikuntza agenteak ezagutu, hauen eskaintzaren informazioa helaraziz eta enpresa eta berrikuntza agenteen arteko harreman eta interakzio eraginkorra sustatu hauen hobekuntzarako baldintza eta aukerak sustatzu izan ziren. Horretarako, Gipuzkoa Berritzeneko lehendakaria den Juan Mari Uzkudunen eta Ibarria Gestinver S.L y Zubiola S. Coop. Enpresetako kideen partaidetza izan zuten. Amaitzeko, aurkeztutako hobekuntza proposamenen eta lankidetzak sustatzearen inguruko eztabaida ireki bat egin zuten.

Eider Joaristiren karroza



Guztira zortzi proiektu aurkeztu ziren Udalak antolatutako karroza lehiaketara

eider Joaristi Madrazo azpeitiarra izango da 2011ko San Sebastian jaietako karrozaren egilea, Festa Batzordeak horrela erabaki ondoren. Aurtengo lehiaketara guztira zortzi proiektu aurkeztu ziren, eta Azpeitiko Udaleko Festa Batzordeak aho batez onartu zuen irabazlea Joaristi izatea. Irabazleak, urtarrilaren 20an kaleratuko den karroza diseinatzeaz gain, 1.500 euroko saria jasoko du. Aurtengo karrozak bi gai izango ditu; Julian Barrenetxearen heriotzaren 50. urteurrena eta Julian Barrenetxea Abesbatzaren sorreraren mende laurdena, hain zuzen ere. Festa Batzordeko zinegotziek adierazi dutenez, “proiektu berri honek Udalak eskatutako betebeharrak jasotzen ditu eta 2011ko karroza horretan goraipatu behar zen gaia modu egoki, profesional eta eguneratuan aurkeztu” du Joaristik. Azkenik, lehiaketara aurkeztu diren gainerako egileei “eskerrak” eman izan nahi dizkie Udalak, eta “datorren urtean berrir” aurkeztera animatu nahi ditu.

Egutegi berdeak etxean



Azpeitiko etxebizitza bakoitzak 2011 urteko egutegia jasoko du hurrengo egunetan

Urte berria iritsi aurretik, Azpeitiko etxebizitza guztietan egutegia banatuko du Udalak. Azken urteetako ohiturari jarraituz, Azpeitiko eta Azkoitiko udalek antolatzen duten 'Gure inguruari begirada bat' lehiaketara aurkeztutako argazkiekin osatutako egutegia izango dute, modu honetan, herritarrek. Aurtengo lehiaketako gai nagusia ingurumena eta irisgarritasuna izan da, "egungo gizarte eredu honetan mugikortasun premiek paisaia eraldatu dute eta era berean mugitzeko premiak irisgarritasun arazoak sortu izan baititu". Aurtengo lehiaketak bederatzigarren edizioa bete du eta sari banaketaren ekitaldia azaroaren 27an egin zen Azkoitiko udaletxean, San Andres jaien baitan. Sei irabazle izan dira guztira; Valentin Garcia (motordun garraioa sailean), Luis Llabori Romatet (motorgabeko garraioa kategorian), Juan Jose Agirre (irisgarritasun oztopoak sailean), Iñaki Aranburu (herribideak mailan), Jose Karlos Martin (hiribideak kategorian) eta Iñigo Olarte (oinezkoentzako guneak sailean) izan dira.

Ahozko ondarea jasota



Ahotsak ekimenean parte hartu duten 70 nagusiei omenaldia eskaini diete Udalak eta Badihardugu elkarteak

Azpeitiko euskara eta antzinako ohitura eta bizimodua betirako biziko da. Izan ere, Udalaren eta Badihardugu euskara elkartearen eskutik abiatutako Ahotsak programaren baitan herriko 70 adinekori elkarriketak egin zaizkie eta testigantzak grabatuta gelditu dira. "Azpeitiko ondarea jasotzeko egindako lana oso garrantzitsua da. Altxor bat dugu eta jasota geldituko da", agertu zuen Ana Mendizabal Euskara batzordeburuak Udalak eta Badihardugu elkarteak partaideei eskainitako omenaldian. Elkarteak bi urte inguru igaro ditu herriko adinekoei elkarriketak egiten eta orain testigantza guztiak lantzen ari dira, ahotsak.com webgunean jarri eta herritar guztien eskura egoteko. "Bideo batzuk ikus daitezke dagoeneko, baina proiektua ez da amaitu eta poliki-poliki dena sartzen joango gara. Hurrengo urtean amaitzea espero dugu", adierazi zuen Badihardu elkartearen teknikariak. Grabazioetan parte hartu dutenek elkarriketen DVD-a jaso zuten Julian Eizmendi alkatearen eskutik eta ekitaldira joan ezin izan zutenek, etxera bidaliko zaie.

Ingurumenaren hazia ‘Ereiten’

Eusko jaurlaritzak ematen duen Udalsarea 21 saria lortu du Azpeitiak herri baratzen proiektuari esker



Julian Eizmendi alkatea Udalsarea 21 lehiaketako beste irabazleekin

eusko Jaurlaritzak Udalsarea 21 saria eman dio Azpeitiko herriari Ereiten proiektuari esker. Julian Eizmendi alkateak joan den abenduaren 1ean jaso zuen egiaztagiria Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburu den Pilar Unzaluren eskutik.

Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Udalerriaren Euskal Sarea da, tokiko iraunkortasun politikan

aurreratuen dauden herriek osatutakoa eta gaur egun, 165 udalerri hartzen dute parte bertan: “Herri hauek, beren Tokiko Ekintza Planekin, lanean dihardute herritarren bizi kalitatea hobetzeko, helburu argi batekin: motorrik gabeko mugikortasuna, tokiko ekonomia bizia eta aisialdirako espazio berdeak sustatzea dituzten udalerri eta hiri iraunkorrako eraikitzea”, azaldu zuen Unzaluk.

“ Herri hauek, beren Tokiko Ekintza Planekin, lanean dihardute herritarren bizi kalitatea hobetzeko ”

Azpeitiak sariketara aurkeztutako proiektua Ereiten egitasmoa izan da, Ingurugiro Etxea Fundazioa, Azpeitiko Udala, Urkome, SlowFood Gipuzkoa eta Kimu Bat enpresak elkarlanean sortu zutena 2009 urtean. Herriko jatetxe eta elkarte gastronomiko desberdinek ere parte hartzen dute bertan.

ereiten

bertako produktuak eta landa eremua



azpeitiko erdigunean bi herri baratza ikus daitezke azken hilabeteetan, bata igerileku ondoan eta bestea, Enparan Dorretxearen aurrean. Hauek, funtzio estetikoa betetzeaz gain, funtzio didaktikoa ere badute, izan ere, Urola Erdia bailarako produktu autoktonoak ezagutzera ematen dituzte, ikasleei zuzendutako baratza tailerrak eta helduentzat baratze ekologikoko ikastaroak ematen dira bertan. Gainera, baratza hauetan ekoizten diren produktuak Azpeitian sukaldea duten bi ikastetxei banatzen zaizkie: Iraurgi ikastetxeari eta Haurtzaro haurtzaindegia. Bestalde, ekimen desberdinak ere egin dira, besteak beste, txorimalo eguna eta ereite eta biltze egutegiko jolasa.

Honela, egitasmoak izan dituen onura eta harrera onak nabarmentzekoak dira. Besteak beste, baratza hauek bertako produktuen lana ezagutarazi dute baratzeek eta paisaiaren sorreran baserritarrek duten garrantzia ikusarazi dute, haurrek garaian garaiko produktuen garrantzia ikasi dute, baita ere, garaian garaikoa lantzeko egin beharreko esfortzua eta behar den denbora eta produktu hauen salerosketan dauden arazoak ikusi dituzte, eta arazo hauek konpondu beharraz jabetu dira eta herrian,

bertako baserritarrez osatutako ostiral arratsaldetako azoka finkatu da, asebetetze maila handia izanik bai baserritarren aldetik eta bai erosleen aldetik.

Modu honetan, tokiko produktuak eta merkataritza bultzatzeko ekimenak Iraunkortasunerako Hezkuntza kategoriako irabazlea izan da eta ziurtagiriaz gain, 3.000 euro jasoko ditu. Dirusari hau, Ereiten proiektua hurrengo urteetan finantzatzen jarraitzeko erabiliko du Udalak.

Sail bakoitzeko saridunak eta finalistak:

- Klima Aldaketa kategorian: Legazpi, Areatza eta Uribe Kosta eskualdea.
- Biodibertsitatea kategorian: Amurrio, Soraluze eta Zerain.
- Iraunkortasunerako Hezkuntza kategorian: Azpeitia, Elgoibar eta Ermua (saria partekatzen dute) eta Zarautz.
- Ekintza Eredugarria kategorian: Zornotza, Abadiño eta Iatabe.
- Ekoberrikuntza kategorian: Mallabia, Alkiza eta Orozko.

udal erabakiak

Abenduaren 2 Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak honako hauek izan ziren:

- 1.- 2010eko azaroaren 4an egindako bilkuraren akta onartzea.
- 2.- Julian Elorza 4 eta 6, eta Enparan kalea 47ko eraikuntzetan araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuak kalifikatzea behin betiko izaeraz.
- 3.- Azpeitiko bizileku-erabilerrako eraikinetan dauden etxebizitzaren irisgarritasuna sustatzeko udal ordenantza: hasierako onarpena.
- 4.- Azpeitiko Udal Kiroldegia Patronatuan hainbat zerbitzu esleitzeko prozeduran aurkeztu den Berraztertze Errekurtsoa.
- 5.- Udalak onartutako sarrera itzulketa eta eskubide eta bajak onartzea.
- 6.- Udal Kirol Patronatuko 2010eko aurrekontuan 1. kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarrien bidez.
- 7.- Azpeitiko Udalaren eta Gipuzkoa Donostia Kutxa, Euskadiko Kutxa eta Udalaren hornitzailea den bestelako finantza erakundeen arteko hitzarmena.
- 8.- 2010eko maiatzean eta ekainean emandako ebazpenen berri ematea.
- 9.- Sahararen aldeko mozioa.
- 10.- Galdera eta errekuak.

agendaabendua

ABENDUA

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29
30	31				

17, ostirala

ERAKUSKETA

Izenburua: Hodeien seme-alabak, giza

eskubideen egoera mendealdeko Saharan

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

LAGUN ONAK M.B.

Danubio ondoan- Maria Eugenia Eguzkiza

Lekua: Lagun Onak duen aretoan

Ordua: 20:30

ZINE KLUBA

Filmea: A proposito de Elly

Ordua: 21:30

Lekua: Betharram Aretoan

I.KULTURALDIA

TXAPELEN OMENEZKO BERTSO JAIALDIA

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 22:30

18, larunbata

ERAKUSKETA

Izenburua: Hodeien seme-alabak, giza

eskubideen egoera mendealdeko Saharan

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

JANARI BILKETA EGUNA

Lekua: Udaletxeko Arkupetan

Ordua: Goizeko 10:00etatik

arratsaldeko 20:00etara

TXIKI BIRAN

Lekua: San Agustin kulturgunea

Ordua: 18:00etan

AZPEITIKO KIROLARIA-2010

IZENDAPEN EKITALDIA

Ordua: 12:30

Tokia: Azpeitiko Udala (Areto Nagusia)

ZE ESATEK? TALDEAREN KONTZERTUA

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 22:30

IRAURGI IKASTETXEAK GABON JAIALDIA

Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

Ordua: 17:00etan

19, igandea

I.KULTURALDIA

Dantza ekitaldia eta kontzertua:

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 19:00etan

21, asteartea

SANTO TOMAS EGUNA

(Ikus egitaraua)

23, osteguan

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

24, ostirala

GABON ESKEA: OLENTZERO

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

25, larunbata

UDAL MUSIKA BANDA

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 13:00etan

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

26, igandea

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ordua: 16:00-20:00

Lekua: Izarraitz Pilotalekua

METAL BOSKOTEAK

GABON KANTEN KONTZERTUA

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 18:30

27, astelehena

ZINE KLUBA

Umeentzako TOY STORY 3

Ordua: 17:00

Helduentzako THE COVE

Ordua: 21:30

Lekua: San Agustin

GABONETAKO GAZTERI

ESKEINTZA

GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ordua: 16:00-20:00

Lekua: Izarraitz Pilotalekua

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

28, asteartea

ZINE KLUBA

Umeentzako THE KARATE KID

Ordua: 17:00

Helduentzako LA CHINOISE

Ordua: 21:30

Lekua: San Agustin

GABONETAKO GAZTERI

ESKEINTZA

GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ordua: 16:00-20:00

Lekua: Izarraitz Pilotalekua

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

29, asteazkena

ZINE KLUBA

Umeentzako VICKY BIKINGOA

Ordua: 17:00

Helduentzako IT'S ALL ABOUT LOVE

Ordua: 21:30

Lekua: San Agustin

GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ordua: 16:00-20:00

Lekua: Izarraitz Pilotalekua

GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

30, osteguna

ZINE KLUBA

Umeentzako SHREK, Felices para siempre

Ordua: 17:00

Helduentzako LOS CONDENADOS

Ordua: 21:30

Lekua: San Agustin

GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA

GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ordua: 16:00-20:00

Lekua: Izarraitz Pilotalekua

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

31, ostirala

UDAL MUSIKA BANDA Pasakallea

LAGUN ONAK M.B. AIZKORRI

GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ordua: 16:00-20:00

Lekua: Izarraitz Pilotalekua

SAN SILVESTRE LASTERKETA

Irteera: Plaza Nagusia

Ordua: eskolarrak 10:30ean

Helduak 12:00etan

XV.BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74 Abenduaren 1, 10, 13, 18, 19, 21, 24, 27 eta 30.

ARANBURU.

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2

Tel.: 943 81 13 50

Abenduaren 9, 11, 12 eta 31.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49 Abenduaren 3, 7, 16, 20 eta 26.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74 Abenduaren 2, 8, 14, 17, 22, 25 eta 28.

JACOME.

Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58

Abenduaren 4, 5, 6, 15, 23 eta 29.

